

## XEDAPEN OROKORRAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

## 2900

*AGINDUA, 2018ko maiatzaren 16koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez agintzen baita argitaratzea barraskilo-ekoizpenera zuzendutako Euskadiko nekazaritza-ekoizpen ekologikorako arau tekniko espezifikoaren aldaketak.*

Europako Kontseiluak 2007ko ekainaren 28an emandako 834/2007 (EE) Erregelamenduak, produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzkoa eta 2092/91 (EEE) Erregelamendua indargabetzen duenak, ekoizpenerako metodo ekologikoen garapen jasangarrirako oinarria eskaintzen du 1. artikuluan. Era berean, produktu ekologikoak ekoizteko, prestatzeko eta banatzeko etapa guztietarako, horiek kontrolatzeko eta ekoizpen ekologikoari erreferentzia egiten dioten etiketak jarri eta publizitatea egiteko jarraibideak erabiltzeko ezartzen dituen arauak babesteko helburu eta printzipio komunak ere eskaintzen ditu.

Honako hau dio 2. artikuluan: «nekazaritzakoak diren eta produktu ekologiko gisa merkaturatu diren edo merkaturatuko diren produktu hauei aplikatuko zaie Erregelamendua: a) nekazaritza-produktu biziak edo eraldatu gabeak, b).....».

Barraskiloen edo horien animalia-jatorriko produktuen kasua Erregelamenduaren aplikazio-esparruan sartzen da, zehazki Kontseiluak 2007ko ekainaren 28an emandako 834/2007 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluan a) apartatuan. Animaliak deitura ekologikoaren babespean merkaturatu ahal izateko, aipatutako erregelamenduan eta horren aldarazpenetan ezarritako arau eta printzipio orokorrei jarraituz hazi behar dira.

Ondoren, Europako Batzordearen irailaren 5eko 889/2008 (EB) Erregelamendua argitaratu zen. Horren bidez, produktu ekologikoen ekoizpen, etiketatze eta kontrolari lotuta Europako Kontseiluen 834/2007 (EK) Erregelamenduan jasotako xedapenak ezarri ziren, eta behi, zaldi, txerri, ardi, ahuntz, baserriko hegazti eta erleei aplikatutako dakizkiekeen ekoizpen, etiketatze eta kontrol arau bereziak jaso ziren (7. artikuluan). Animalia-espezie jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien xedapenak ez daude guztiz garatuta, eta denbora gehiago behar da. Horrenbestez, geroagoko prozedura batean aurkeztu behar dira (erregelamendu honetako 2. kontuan hartuzkoan adierazi den bezala). Hori dela eta, erregelamendu honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira, besteak beste, aipatutakoak ez diren ganadu espezieak. Barraskiloa kanpoan geratuko litzateke, beraz.

Kontseiluak 2007ko ekainaren 28an emandako 834/2007 Erregelamenduaren (EEE) 42. artikuluan adierazten denez, animalia-espezie jakin batzuen ekoizpenari aplikatu beharreko xedapenik ez badago, etiketak jartzeko eta kontrolatzeko xedapenak aplikatuko dira. Gainera, arau nazionalak aplikatuko dira, eta, horrelakorik egon ezean, Europar Batasuneko kide diren estatuek onartu edo aitortutako arau pribatuak. Orain arte ez da ekoizpen mota horretarako arau teknikorik onetsi estatu mailan.

Autonomia-erkidego honek babesa eman zien nekazaritza ekologikoaren araubidean erregistratuta dauden eta nagusiki barraskilo-hazkuntzan diharduten operadoreei. Arestian azaldutakoa aintzat hartuta, Barraskiloen Ekoizpen Ekologikorako Arau Tekniko Espezifikoa egin eta onetsi zuen horretarako organo eskudunak, hots, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko abenduaren 29ko 10/2006 Legearen 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz eta Europako Kontseiluak ekainaren 28an

emandako 834/2007 (EEE) Erregelamenduan eta horren aldarazpenetan ezarritako arau eta printzipio orokorrak errespetatuz.

Era berean, abenduaren 29ko 10/2006 Legearen 6.1.c) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, 2009ko maiatzaren 20an, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari –zeinak argitaratu egin baitzuen– proposatu zion barraskilo-hazkuntza arautzen duen araua, hau da, Barraskiloen Ekoizpenerako Euskadiko Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoari buruzko Araudi Tekniko Espezifikoa. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2010eko maiatzaren 4ko Aginduaren bidez gauzatu zen argitalpen hori.

Agindu honetan argitaratuko dira barraskiloaren ekoizpen ekologikoaren arau teknikoari buruz Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak egin eta onetsi dituen aldaketak. Honako hauek dira aldaketak egiteko arrazoiak: gaur egun indarrean dagoen nekazaritza ekologikoari buruzko Europako araudiari eginiko aipamenak eguneratzeko beharra; barraskilo-hazkuntzari aplikatu beharreko betekizun batzuk egokitzeko beharra –izan ere, araudi horretan, betekizun horiek dagoeneko ezarrita daude, oro har, abeltzaintza-mota guztietarako–; eta, azkenik, ustiatetikiko kanpoko parkeen guztizko azalerarako ezarritako muga kentzeko beharra. Aipatutako muga-kentze horren xedea da barraskilo-haztegien neurria gaur egungo eskakizunetara egokitzea, jardueraren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko.

Arau teknikoaren aldaketak jakinarazi egin behar dira; izan ere, erregelamendu tekniko baten zati dira, eta erregelamendu horretan txertatuko dira. Arau eta erregelamendu teknikoaren arloko informazio-prozedura ezartzen duen 98/34/EE (EB) Zuzentarauan xedatutakoaren ondorioetarako –2015/1535 (EB) Zuzentarauak aldatua–, arau tekniko hau eman aurretik, Europako Erkidegoko arau horren 5. eta 6. artikuluetan ageri den jakinarazte-prozedura bete da, eta, hala, errespetatu egin da Batzordeari erregelamendu teknikoaren proiektuaren berri eman zaionetik erregelamendua ezarri den arte igaro beharreko hiru hilabeteko epea, Zuzentarauan jasotakoaren arabera. Prozedura horren xedea da arau eta erregelamendu tekniko horien inguruan gardentasunez jardutea eta horiek kontrolatzea, Europar Batasuneko kide diren estatuen artean arrazoirik gabeko oztopoak sortzeko arriskua murrizte aldera.

Hori dela bide, hau

#### EBAZTEN DUT:

Agintzea barraskilo-ekoizpenerako Euskadiko Nekazaritza Ekoizpen Ekologikorako Arau Tekniko Espezifikokoaren aldaketak argitara daitezela. Agindu honi gehitu zaion eranskinean dago jasota.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko maitzaren 16a.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,  
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

## ERANSKINA

EUSKADIN BARRASKILOEN EKOIZPEN EKOLOGIKOA GAUZATZEKO ARAU TEKNIKO  
ESPEZIFIKOAREN ALDAKETAK

1.– 1. apartatua, printzipio orokorre buruzkoa, aldatzea.

Beste idazkera bat ematen zaio 1. apartatuko 1. Paragrafoari, eta, aurrerantzean, honela idatzita geratuko da:

Arau horiek Euskal Autonomia Erkidegoan ekoiztako barraskilo ekologikoei soilik aplikatzen dira.

Barraskiloak edo animalia produktuak deitura ekologikoaren babespean merkaturatu ahal izateko, animalia horiek Europako Kontseiluaren ekainaren 28ko 834/2007 (EK) Erregelamenduan, produktu ekologikoen ekoizpen eta etiketatzeari buruzkoan, jasotako arau eta printzipio orokorre jarraiki hazitakoak izan beharko dute. Erregelamendu horren bidez, 2092/91 (EK) Erregelamendua eta horretan burututako aldaketak indargabetu ziren, honako arau tekniko hauek erregulatutako alderdiei dagokienez izan ezik.

Europako Kontseiluaren ekainaren 28ko 834/2007 Erregelamenduaren 34. artikuluekin bat eginez, «kontrolaz arduratzen den agintaritzak (ENEEK) ezin izango du honako hau debekatu, kasuan kasuko ekoizpen metodoa oinarri hartuta: beste estatu kide batean kokatutako agintaritza edo erakunde batek kontrolatutako produktu ekologikoak etiketatzea, aurkeztea edo merkaturatzea, baldin eta produktu horiek erregelamenduan ezarritako baldintzak betetzen badituzte».

2.– 2. apartatua, eraldaketari buruzkoa, aldatzea.

Beste idazkera bat ematen zaio 2. apartatuaren 1. paragrafoari, eta, aurrerantzean, honela idatzita geratuko da:

«Produktu ekologikoen ekoizpen eta etiketatzeari buruzko Europar Batasunaren araudian ezarritakoa aplikatuko da, hain zuzen ere hauek: Europako Kontseiluaren ekainaren 28ko 834/2007 (EK) Erregelamenduaren 17. artikulua; eta Europako Batzordearen irailaren 5eko 889/2008 (EB) Erregelamenduaren, produktu ekologikoen ekoizpen, etiketatze eta kontrolari lotuta Europako Kontseiluaren 834/2007 (EK) Erregelamenduan jasotako xedapenak ezarri zituenaren, 36. eta 37. artikulua.»

3.– 3. apartatua, animalien jatorriari buruzkoa, aldatzea.

A.– 3. apartatuko 1. paragrafoan, honako hau ezabatu egiten da:

«*Helix gualteriana*, *Helix alonesis* (*H. candidissima*, *H. lactea*, *H. aspersus* eta *Helix pomatia*)»

B.– Beste idazkera bat ematen zaio 3. apartatuaren 3. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Modu konbentzionalen hazitako animaliak sartu ahalko dira, baldin eta jaiotze fasean ez badago ekoizpen ekologikoaren arauak betetzen dituen behar beste animaliarik. Ugalketara bideratzekoak diren animalia helduen % 20 sartu ahalko da. Ehuneko hori % 40ra arte handitu ahalko da, agintaritza eskudunak horretarako baimena ematen badu, ustiatzea asko handitzen bada edo arrazaz aldatu nahi denean. Animalia horiek 2.2 puntuan zehaztutako eraldaketa aldia pasatuko dute.»

C.– Beste idazkera bat eman zaio 3. apartatuaren 4. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Ez da onartuko basoan bildutako edo arauen kontrolik gabe inportatutako alerik.»

4.– 4. apartatua, elikadurari buruzkoa, aldatzea.

A.– 4. apartatuaren 1. paragrafoan, honako esaldi hau ezabatu egiten da:

«Debeku da bazkatzera behartzea».

B.– Beste idazkera bat ematen zaio 4. apartatuaren 2. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

Barraskiloen elikadura oinarritu behar da patioetako bazkalekuan eta zerealen, olio-landareen eta proteaginosen nahasteetan, irin-forman, pikortatuan edota «pellet» forman banatuta. Elikagai horiek jartzeko erabiliko diren gainazalek ahalbidetu beharko dute elikagaien egoera kontrolatzea eta, kontsumitzen ez badira edo onddoez kutsatu badira, handik kentzea.

C.– Ezabatu egiten dira 4. apartatuko 3., 4. eta 5. paragrafoak.

D.– Paragrafo berri bat gehitzen zaio 4. apartatuari, eta paragrafo hori 4. zenbakiarekin izendatzen da.

«Elikagai-errazioan eraldatutako lehengaiak sartzeari baimenduta dago, baldin eta betetzen badira produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzko Europako Kontseiluaren 834/2007 (EE) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europako Batzordearen irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamenduaren 21. artikulua ezarritako baldintzak.»

5.– 5. apartatua, profilaxia eta albaitari-zaintzari buruzkoa, aldatzea.

A.– Beste idazkera bat eman zaio 5. apartatuaren 1. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Gaixotasunak prebenitzeko, oinarrituko izango da arrazak hautatzea, praktika zooteknikoak gauzatzea, elikagaien kalitate ona, ariketa fisikoa, animalia-dentsitate egokia, eta baldintza higieniko egokiak eskainiko dituen egoitza egokia izatea.»

A) Beste idazkera bat eman zaio 5. apartatuaren 2. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Ustiategi ekologikoetan albaitaritzako sendagairik erabili behar izanez gero, printzipio hauek beteko dira:

a) Ahal dela, produktu fitoterapeutikoak (esate baterako, landare-esentzien estraktuak eta abar), produktu homeopatikokoak (landare-, animalia- edo mineral-jatorriko substantziak) eta oligoelementuak erabiliko dira, bai eta Nekazaritza Ekologikoari buruzko Arauetan ezarritako substantziak erabiltzen dituzten tratamendu alternatiboak ere.

b) Debekatuta dago sintesi kimikozko albaitaritzako sendagai alopaticoak erabiltzea, barnean hartuta kontsumorako barraskiloari prebenitzeko edo sendatzeko emandako parasitoen kontra-koak edo antibiotikoak; horiek erabiltzea debekatuta dago, eta animalioak deskalifikatzea dakar.

c) Debekatuta dago hazkuntza edo ekoizpena bizkortzeko substantziak erabiltzea (antibiotikoak, kokzidiostatikoak edo hazkuntza bizkortzen duten beste substantzia artifizial batzuk barnean direla).

6.– 6. apartatua, abeletxe eta instalazioetako hazkuntza- eta mantentze-arauei buruzkoa, aldatzea.

A.– Beste idazkera bat eman zaio 6. apartatuaren 1. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Nekazaritza ekologikoaren esparruko barraskilo-abeltzaintza albait gehien hurbilduko zaie barraskiloen bizimodu naturalaren baldintzei. Aire zabalean garatu beharko da, baina itzala ematen duen oihalezko egitura batez estalita egon ahalko da; animalia-kopurua mugatua izango da. Debekatuta dago barraskilo kumeak eraikin barruan soilik haztea, ugaltze-, hibernatze- edo inkubazio-aldietan izan ezik. Noizean behin, barraskiloak negutegi hotzetan haz daitezke.»

B.– Beste idazkera bat ematen zaio 6. apartatuaren 2. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Kanpoko parkeek landarezko estalki bat izan beharko dute beti, janaria ez ezik itzala eta mikroklima aproposa duen higrometria egokitu bat eskaintzeko barraskiloek, eta nematodo eta bakterioen indizea prebenitzeko. Parkeetan ura banatzeko edozein sistemaren bidez zaindu ahalko da higrometria.»

C.– Beste idazkera bat eman zaio 6. apartatuaren 3. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Barraskiloek ez badute kanpoko parkeetan hibernatzen, ekoizten den arrazaren hibernazio-aldi naturalean egin beharko da, abeletxea kokatuta dagoen eskualdeko negualdiaren arabera. Hibernazio-aldia ez da izango lau (4) hilabetetik beherakoa.»

D.– Beste idazkera bat eman zaio 6. apartatuaren 5. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

Barraskiloak biltegitratzeko lan oro (hibernazioa, ugaltzea, inkubazioa edo klima muturrekoa den kasuetan), salmentaren aurreko stockean izan ezik, gehienez ere metro kubiko bakoitzeko 100 kilogramo barraskiloko dentsitatea duen leku batean egin beharko da. Eraikinetan, barraskiloentzako bolumen garbi erabilgarria, gutxienez, 0,005 m<sup>3</sup>/barraskilo izango da. Kontrol-ekipamenduak erabili ahal izango dira tenperatura konstantea eta ekoizten den arrazaren hibernazio-baldintza naturaletara egokitua izan dadin.

E.– Beste idazkera bat eman zaio 6. apartatuaren 6. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Barraskiloak ugaltzeko, biltegitratzeko eta hibernatzeko metodoak.

Debekatuta daude landare-osasunerako tratamenduak. Belarra kentzeko eta izurrien kontra borrokatzeko praktika mekanikoak soilik daude baimenduta.

Barraskiloaren hazkuntza ekologikoan erabilitako materialek inolako tratamendu kimikorik hartu gabekoak izan beharko dute, eta ezingo dira izan Nekazaritza Ekologikoari buruzko Arauak betetzen ez dituzten jardueretan erabilitakoak.

Ugaltzeko lokalak eta esparruak, hustu ondoren, karrakatze bidez garbitu eta desinfektatuko dira. Batzordearen irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamenduaren VII. eranskinean zerrendatutako produktuak erabili ahalko dira horretarako.

Ugalketa-garaian, presiozko urarekin egingo da eguneroko garbiketa.

Barraskiloak hazteko klima muturrekoa bada eta horrek animaliak arriskuan jar baditzake, behin-behinean eraikin barruan sartu ahalko dira berriro ere, baina aldi horretan ezingo dira bazkatu.»

F.– Beste idazkera bat eman zaio 6. apartatuaren 7. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Kanpoko parkeak.

Parkeak edo parkeetako azpisailak sortak ondo bereizteko moduan eratuko dira. Horretarako, honako hauek erabili ahalko dira: sareak, panelak edo txapak (lurzoru barruan sartuak), itxitura elektrikoak dituzten ertzak (1,5 v) edo araudi orokorrak baimendutako edozein produktu natural (xaboi beltza, koipea –baldin eta lurzorura ez bada lerratzen–...).

Kanpoko parkeek landare-estalki trinko eta iraunkor bat izango dute.

Nahitaezkoa da gutxienez lau (4) hilabeteko hutsaldi sanitarioak izatea barraskilo sorta baten eta beste baten artean.

Barraskiloentzako eta horien ondorengo bilketarako babeslekuak tratatu gabeko material natural edo bizigabez egindakoak izango dira.

Ekoizpen aldian, barraskilo-harrapariengandik (karraskariak, intsektuak...) babesteko neurriak mekanikoak edo borroka biologiko bidezkoak soilik izango dira. Arratoi-garbiketa salbuespena izango da. Izan ere, lan hori egiteko, ohiko tratamenduak erabili ahal izango dira; hala ere, tratamendu horiek patioen kanpoaldean aplikatuko dira, eta lurzoruarekin ez dute zuzeneko kontakturik izango. Tratamendu horiek tranpa itxiekin egin behar dira, eta ustekabeko sakabanatzeak saihestuta.

Debekatuta dago parkeetan tratamendu fitosanitarioak erabiltzea, uxagarriak izan ezik parkeen perimetro-eremuan, edota ongarri eta medeagarriak ekoizpen-fasean. Soil-soilik 889/2008 (EE) Erregelamenduaren I. eta II. eranskinetan jasotako produktuak erabili ahalko dira, animaliak parkean jarri baino hogeita hamar (30) egun lehenagora arte.

Kanpoko parkeetako dentsitatea ez da izango metro koadro bakoitzeko 4 kilogramo barraskilo baino handiagoa (350 animalia/m<sup>2</sup> kalibre ertain-txikiko espezieentzat –Helix aspersa aspersa motakoak–; 250 animalia/m<sup>2</sup> kalibre handiko espezieentzat –Helix aspersa maxima motakoak–). Dentsitate horiek ekoizleak kalkulatu beharko ditu, barraskiloak patioetara sartzen dituenean.

Parkearen azalera ez da izango 300 m<sup>2</sup> lurzorutik gorakoa.»

G.– Paragrafo berri bat gehitzen zaio 6. apartatuari, eta paragrafo hori 8. zenbakiarekin izendatzen da.

«8.– Debekatuta dago ekologikoak diren barraskiloak eta ez direnak ustiategi berean ekoiztea.

7.– 7. apartatua, kudeaketa zooteknikoaren metodoak, garraioa eta animalien eta animalia produktuen identifikazioari buruzkoa, aldatzea.

A.– Beste idazkera bat eman zaio 7. apartatuaren 2. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

Hil aurretik, barraskiloak kanpoko parkeetatik kenduko dira, eta lehortzen utziko dira, baraurik, gutxienez bost (5) egunez. Hil aurretik, barraskiloek gutxienez 90 egun igaro behar izan dituzte kanpoko patioetan.

B.– Beste idazkera bat ematen zaio 7. apartatuaren 3. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Barraskiloak edo horien produktuak prestatzeko edota egiteko, Batzordearen irailaren 5eko 889/2008 (EE) Erregelamenduaren 3. kapituluaren jasotako arau orokorrak bete beharko dira. Barraskiloak hiltzeko, galdarraztatu egingo dira.»

C.– Kendu egiten da 7. apartatuaren 4. paragrafoa.

D.– Beste idazkera bat eman zaio 7. apartatuaren 5. paragrafoari, eta hau izango da haren testua hemendik aurrera:

«Barraskiloak ongi identifikatuta egongo dira ekoizpen, prestakuntza, garraio eta merkaturatze kate osoan, haien trazabilitatea bermatuta geratzeko moduan. Barraskiloak sortaka identifikatu behar dira. Trazabilitatea sortak hasten direnetik egiten da, eta kontrol-agintaritzaren eskura egon behar du une oro. Hauxe da irailaren 5eko Batzordearen 889/2008 (EE) Erregelamenduaren 76. artikulua ezartzen duen landa-koadernoan erregistratu beharreko informazio gehigarria:

- Barraskiloen sorta kokatuta dagoen patioaren edo patio-azpisailaren zenbakia.
- Patioan zer datatan sartu den.
- Barraskiloak biltzeko data edo datak.

Banakoan edo banako-taldean jatorriak landa-koadernoan erregistratuta egon behar du, hauen arabera:

- Barraskilo-kumeen kanpo-erosketa.
- Ugaltze-animalien hautaketa edo erosketa.»